

## ESKUALDEEN GARRANTZIA GIZARTE SEGURUAGO BAT SORTZERAKO ORDUAN

- **European Cyber Security Organisation (ECSO) erakundeak dokumentu bat eman du argitara, eskualde-kooperazioa funtsezko elementutzat hartuz zibersegurtasunaren egoeran.**
- **Euskadi «Smart Territories» gisa hartzen da, hau da, ekintzailetzaren eta zibersegurtasunaren esparruko berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egiten duen ingurutzat.**
- **Euskadin fabrikazio aurreratuko aktibo eta zerbitzuen punta-puntako sarea dago, BDIH gisa ezagutzen dena (Basque Digital Innovation Hub).**

Egun ingurune teknologikoen mendekotasun handia dago Amerikako Estatu Batuak edo Israelekiko. Mendekotasun hori txikitu eta gaitasun propioak sortzeko helburuz, denbora daramate Europako aginpideek hornitzaileekin, industriarekin, garapen teknologikoko zentroekin, adituekin eta beste agente batzuekin batera kooperazio-politikak garatzen.

### Eskualdeen garrantzia zibersegurtasunean

[Zibersegurtasuneko Europako Erakundeak \(ECSO\) The Role of the Regions in strengthening the European Union's cyber security](#) dokumentua argitaratu du, non eskualdeen arteko kooperazioa zibersegurtasun europarreko esparruko funtsezko gaketzat jotzen duen. Dokumentuan, gainera, funtsezkotzat jotzen da baita Europako eskualdeen lana, beren tokiko ekosistemekin lotura zuzen eta pribilegiatua izanda.

Zentzu horretan, dokumentuak «**Smart Territories**» gisa hartzen du Euskadi, hau da, ekintzailetzaren eta zibersegurtasunaren esparruko berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egiten duen ingurutzat, eta non agente bai publiko bai pribatuek modu bateratu eta koordinatuan lan egiten duten. Balioan jartzen du, halaber, gaur egun **100 organizaziotik gora dagoela Euskadin zibersegurtasunaren esparruan lanean, horien artean beren teknologia propioa ekoizten duten 16 nabarmentzen dituelarik**, [Euskadiko Zibersegurtasunaren Liburu Zurian](#) jasotzen den bezala.

Gaur egun, eta estimazioen arabera, 25 mila milioi eurotan baloratutako barne merkatua dago Europan, eta 12.000 enpresatako panorama industrialia (horietatik % 74 mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak). Egoera horrek aukera handiak dakartza bai hornitzaile tradizionalentzat eta bai sortzen ari direnentzat.

info@bcsc.eus | 945 010 059

Arabako parke teknologikoa  
Albert Einstein. 46-3. – E7 eraikina 01510  
Vitoria-Gasteiz



## Euskadi, ekintzailetzarekin konprometitutako ekosistema bat

Euskadin fabrikazio aurreratuko aktibo eta zerbitzuen punta-puntako sarea dago, [BDIH \(Basque Digital Innovation Hub\)](#) gisa ezagutzen dena; Euskadiko enpresen eskura dagoen prestakuntzarako, ikerketarako, testatzerako eta balioztatzerako azpiegitura bat, SPRI taldeak gidatua.

Basque Cybersecurity Center-ek, iaz, bere batzordeko parte diren [Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko](#) 4 agenteekin batera (Tecnalia, Vicomtech, Ikerlan eta BCAM), abian jarri zuen [zibersegurtasun-nodoa](#), BDIHkoa, I+G+bako proiektuen garapena sustatzeko helburuarekin.

Nodo hori Euskadiko geografian zehar banatuak dauden 5 laborategik osatzen dute, beren artean elkar konektatuak daudenak i2Basque sarearen bitartez:

- Vicomtech (Donostia): 4.0 industriara eta *blockchain*era bideratua.
- Ikerlan (Arrasate): produktuen testatze eta ziurtatzean, 4.0 industrian eta *blockchain*ean espezializatua.
- BCAM (Bilbo): eredu matematikoetara eta simulazioetara bideratua.
- Tecnalia PTB (Zamudio): *smart grid*, automobilgintzara eta *blockchain*era bideratua.
- Tecnalia PTA (Miñao): Cyber Range gisa ere ezagutzen dena. Entrenatzera eta trebakuntzara bideratua.

**Zibersegurtasuneko** nodoarekin batera egun aktibo daude baita **fabrikazio gehigarriko** nodoa eta **robotika malguko** nodoa. Aurreikusita dago, gainera, **material berrien, makina adimentsu eta konektatuen eta soluzio digitalen** nodoak abian jartzea.

Eusko Jaurlaritzatik bertatik, gainera, ekintzailetzako beste ekimen batzuk ere gidatzen dira, hala nola [BIND4.0](#), *start up* onenen garapenera bideratutako nazioarteko izaera duen programa bat, 4.0 industriako teknologia berrietan oinarritutako irtenbideekin (*big data*, errealitate birtuala/areagotua, robotika kolaboratiboa, zibersegurtasuna, gauzen Internet, 3D inprimatzea, etab.), manufaktura aurreratuko esparruan, energiaren arloan eta osasunaren esparruan aplikatzen direnak.

## Nazioarteko ikusgaitasuna

BCSCK nazioarteko foro desberdinetan parte hartzen du, esparru honetan Euskadin egiten den orori ikusgaitasuna emateko xedez.

- ECSOren parte egiten du 2018ko hasieratik. Foro horretan bereziki aktibo egon gara hasieratik bertatik, eta gainerako nazioarteko bazkideen babesa jaso du lan horrek, bi izendapen garrantzitsurekin:
  - 2018ko ekainean BCSCKo zuzendari den Javier Diéguez aukeratu zuten ECSOko [kolaborazio-batzordeko Europako](#)

[info@bcsc.eus](mailto:info@bcsc.eus) | 945 010 059

Arabako parke teknologikoa  
Albert Einstein. 46-3. – E7 eraikina 01510  
Vitoria-Gasteiz



[eskualdeetako ordezkari](#) gisa (*Partnership Board*); Europako Batzordearekin komunikatzeko kanal perfektu bat, zibersegurtasunari lotutako lan-programak eztabaidatzeko.

- 2018ko azken asteetan, gainera, [ECSOko 2. lan-taldeko kozuzendari](#) ere izendatu zuten Javier. Lan-talde horren lana zibersegurtasunaren, inbertsioaren eta nazioarteko kolaborazioaren merkatua potentziaztera bideratzen da. Izendapen horrek aukera berri bat ireki zuen Euskadin egiten ari den zibersegurtasunari buruzko lana mundu mailan ezagutzera emateko.
- [Global EPIC](#)en parte egitea, *start up* enpresen nazioarteko hedatzea sustatzera bideratzen den ekimena.

Halaber, zentzu horretan inpaktu berezia izan duten ekimen desberdinak egin dira berriki:

- 15 herrialdeetako [enbaxadetako ordezkariekin topaketa](#), Euskadiko ekosistema teknologikoko zibersegurtasuneko gaitasunak aurkeztera emateko.
- [RSA Security Conference-n parte-hartzea zibersegurtasuneko 12 euskal erakunderekin batera](#), euskal ekosistemaren indarrari ikusgaitasuna emateko.
- Ikerketaren esparruan Euskadik dauzkan gaitasunen aurkezpena [Massachusetts Institute of Technology \(MIT\)](#) unibertsitatean.

[info@bcsc.eus](mailto:info@bcsc.eus) | 945 010 059

Arabako parke teknologikoa  
Albert Einstein. 46-3. – E7 eraikina 01510  
Vitoria-Gasteiz

